

# ALKOHOLA OSO TXARRA DA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**TERESA:** (*Eteten*) Une bat, une bat, une bat... Esaten dizudanean "Zer moduz asteburua?" Ez dizut esaten ari "Zer moduz asteburua?", ezta "Ondo pasatu zenuen asteburu honetan?" eta are gutxiago "Zer egin zenuen asteburu honetan?" Ez nahastu. Esaten ari natzaizu: "Nire asteburua xehetasun guztiekin kontatuko dizut, eta zuk entzun egingo didazu nahi baduzu ala ez". Beraz, mesedez, erantzun azkar eta erraz kortesiazko galdera erretorikoari, gauza asko azaldu behar ditudalako eta gosaltzeko hemeretzi minutu besterik ez zaizkigulako geratzen. Ulertu duzu? -Bai- ulertu duzu. A, ez, jan, jan, ez duzu hitz egin beharrik. Begira, nik hitz egingo dut. Kontatuko dizut. Asteburua, aparta: Samanthari agur egin genion. Laneko taldetxo bat afaltzera joan ginen. Ustekabeko festa moduko bat egin genion. Gero, nor joan ginen esango dizut, izenak esaten badizkizut berdin geratuko baitzara. Samantha lehen gurekin zegoen neska da. Amatasun baja eskatu du, baina amatasunik gabe. Aldi baterako baja, depresioagatik, baina ez aldi baterakoa, iraunkorra baizik: Tira, joan egin dela. Dirudienez, kolapsatu egin zen. Hori esan zuen. (*Fidagarri, ahopean*) Kitapena ez kentzeko ohiko hitzaldia. Izan ere, nahita bazoaz, ez duzu zentimorik ere ikusten; baina kontu mediko batengatik bada... Neskak paperak aurkeztu zituen, oso ondo egin zuen...

Benoa, esaten nengoena. Bere etxean agertu ginela. Berak ez zekien ezer. Ezta senarrak ere ez. Ikusi behar zenuen zein aurpegi jarri zuen... Ezkondu aurreko agur afari modukoa izan zen. Indarrez atera eta festan eramaten dugu. Mozkortzen dugu. Ze dibertigarria izan zen. Badakizu zer egiten duen berrogeitaka urteko batek mozkortzen denean: lelokeria batzuk esaten dituuuu... Esan zuen berari lana asko gustatzen zitzaioela eta deprimituta zegoela alde egiteagatik.

Alkohola oso txarra da, neska. Lana kaka hutsa da, ikusiko duzu. Ui..., oraindik burua bueltaka daukat. Askok edan genuen eta. Mariok cowboy kapela batekin buruan bukatu zuen. Irenek oinutsik eta galtzerdietan lasterka eginda amaitu zuen. Chema eta Jose, farola batera igota. Sandra, Bea eta hirurok, "Over the rainbow" ozen-ozenki -a ze panorama-, eta Samanthak esaten zuen ni zitala naizela eta ez ninduela inoiz jasan ...

Ele txera  
Hondatuak zabaltzaia



# ALKOHOLA OSO TXARRA DA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Oso ondo egon zen. Hemen oso giro ona dago, ikusiko duzu.

**INDICACIONES:** **SAMANTHA**k lana utzi zuen **TERESA**rekin nazkatuta amaitu zuelako. **SAMANTHA**ren ordezkooak orain jakingo du non sartu den.

**TERESA** zitala da, baina oraindik ez daki. Bakarrizketa honen interesa hor dago: **TERESA** oso toxikoa erakutsi behar da, baina, aldi berean, jendeak onartzen ez duela ohartzeko bezain inozoa.

Ele txera  
Munduko zabalduz

